

SCENE I

Eloich

Intchauspeko alaba dendaria
Ha Intchauspeko alaba dendarir
Ni andere gei pare gabia
Hatchemandut hatchemandut
Gizon gei pare gabea, choragarria
Miletan ez baita parerik

SCENE II

Jeanne Marie

(ichila) Agur andere Eloich, huna hitzeman lana. Ahal bezain ontse brodatu ditut zure mokanesak

Eloich

Ez da goizegi? Jana Marie. Dena den mila ezker Jana Marie

J. Marie

Haatik zoin alegera zin andere Eloich eta nola aphaintzen eta edertzen duzun zure burua.

Eloich

Ez dakizua gizon geia badutala... Eta charmanta gero... espos eguna laster. Segur ukhanon baitugu phesta bat choragarria

J. Marie

Ba othe... Izan ditakea hain laster trenkatzen duzun afera hori?

Eloich

Ser bada J. Marie. Ez niz, ez ni, zu bezalako tonto horietarik... Bethi beldur, bethi herabe... Ni ez niz mutchurdin egongo... Orai 21 urthe nahi niz ezkondu... Nahi izaita aski ma chère eta abian hatchemandut ene choria, ene maitea, ene merla. " au dancing des Tilleuls argentés"... Aditu duzis J. Marie?...

J. Marie

Izan ditakea?... Hoin laster... Eta holakoa?...

Eloich

Zer izaditakea... Ez duzu bertze erraitekrik niri, nik holako segeretu handia zuri erraiten eta? Zer neska trukesa... (besoti har eta inharosten du) Errazu bederen eni konplimentuak... Atsain dut zure zorionaz... Zer gizon charmanta aurkhitu duzun eta holako.... Ah J. Marie tristea... Zu... Mutchurdin bizi eta mutchurdin hilen... Bethi ama bithiren altzoetan, ez baitakizu zer den ez nun den le " dancing des Tilleuls argentés"

J. Marie

Ez behar ere...

SCENE III

Eloich- J. Marie eta Delphina

Norbaitek bortha jotzen du

Delphina

(kanpotik denbora berean) Hor zirea andere Eloich?

Eloich

Sar zite, sar Delphina... Aspaldian zure beha nag

Delphina

(zapeta pare bat bostatik kheniuz) Dames dauzkitzut galdetu zintuen zapetak...

- Eloich Ez da goizegi...Orai nahi dena ez ditake izan abian...Zer pazientzia behar den...
- J. Marie Ba eta zuk labura
- Eloich Ba bainan, zu bezelako talo eta gahki ophnl batekin bortchaz galtzen da. Heai,zapeta horiek nola ditudan '(sartzen da Delphina)
- Delphina (Belhannikatus haren oinetan...oihal bat hedatzen du...)
Hean,ikhus ontsa dituzenez...izarikoak hartu ditut N° 38
zango fina...eta larra gachoa,azken modakoak
- Eloich Ikhus...(elle s'assoit) presatua naiz...ARRatsean 8 orenetan aurkhitu behar naiz au " dancing des tilleuls argentés"
- Delphina Badea berriagorik andere Eloich...Han,hemenka diote andere Eloich ezkontzen dela...Hatchemaiten zaitut biziki alegera eta egia erran biziki ederra...
- J. Marie Hala da, Andere Eloichak ostian erran daut.
- Eloich Cho J. Marie uts ni khomiatzerat...Es egia da, hatchemandut gizon gei bat pare gabekoa...Hor au dancing des tilleuls argentés ezin ahantzizko tokian,ohartua nintzen bazela jaun gazte bat baina gina...oharmanta... Komitatu nu dantzan artzerat...Zoin gisakoa...Galanta,komplimendu pollitez bethea Ez gizon hartz horietarik...dantzan artzean beren zapeta phizuekin erhiak lehertzen dituzten horietarik... (zapetak entseazearekin,sobera bortchatzen du zangoa) Atch,Atch,neskatokoa...ar zite eztikiago...min egiten dautazu...
- Delphina Bainan,beraa zite anderea...phusa zazu zangoa...Botcha,phichka bat...gero plegua hartzen dute berek...
- Eloich (khechu) Ba zuek botiesek,zuen phuskak jender bortchaz kokatu nahi tuzue.
- J. Marie Eta gero andere Eloichymola bureratuko duzu zure aferara...
- Eloich Ha,ha...J. Marie alehia deus...Zoin kuriosa...Hots,holako jaun pare gabea ikhusi eta,hoin gisakoa...Holako hegitarate argikoa,ezagutu dut ez zitakela izan enetako gizon gei hobea-gorik...Frantsesek dioten bezala " le coup de foudre izan dut" Elgar maite dugu eta baitespada behar dugu ezkondu (desphina azkarkiegi phusatzen dako zapeta) Ai,ai,ai...(phusatzen du Delphina lurerat) Ez dut nahi holakorik.
- J. Marie (ramasse la chaussure et la donna à Delphine) Oizu Delphina s'adressant à Eloich) Agian ez duzu holakorik eginen gizonar
- Eloich Zaude trunkil J. Marie ez dut holako egiterik ukhanen,zeren ene lagun maiteak eginen baitutu nik nahi ditudan guziak...
- Delphina (se levant) Bertae pare bat ekharriko daitzut andere Eloich
- Eloich Ba erna zite,erna...aratseko behar dut,ene gizon geia ene beha egonen baita au dancing

Delphina Laster batez banoa...Aldi huntan ekharriko daukitzut zure gustukoak (elle sort)

Eloich Agian ba...Halere zik bethi elhe ederra bainan phuskak...

J. Marie To...andere Eloich heidu zautzu Margot, konplimentuekin segura (elle sort)

Eloich Akhula zazu Delphina eta azkarki oraine. Ze ba erna bedi (elle chante ici un air de danse)

S C E N E IV

Eloich et Margot (coquette comme Eloich)

Margot Bethi alegera ...Ez niz harritzen. Zer aditur ene adichkide mina ezkontzen dela...Berrira ari da hedatzen sua larrean bezala

Eloich (d'un saut elle embrasse Margot) Ene Margot, gure aferan hain fite trenkatua diun, nan ez baitut denborarik izan ene adichkide minari pharte emaiteko

Margot Alo...Khorlazan zer bai...Nor den...Nola deitzen den...Zer gazte den eta holako...

Eloich Charmanta, paregabea

Margot Ez dun dudarik, hautatu dudanaez gainean

Eloich Ene gizon geia deitzen dun ...Gaston...Gaston Guiberteau

Margot Gaston...Gaston Guiberteau...Zer izen gochea

Eloich Dh ba, izen choragarria Gaston...Gaston...Iduri din ezta ahoan...Musika beharrietan...Ez izen trukes horietarik ez...Manez...Pello...Piarres...Mattin eta holako...Bainan Gaston Gaston

Margot Eta itchura?...

Eloich Perla bezain fina...Ez dun gizon kankail horietarik...Ez eta ere gizon ttipi iringarri horietarik, are gutiago tripa handi horietarik...Bainan fina...Chuta...

Margot Beraz hainbait andere...

Eloich Den gutiena pipherra saltsan bezala... Ile beltch kuskulatu batekin

Margot Frantsesek dioten bezala, accroche coeur...

Eloich Bisaiako larrua, ez zuri, bainan " blanc mat" so ezta, sarkhorra khantuak dion bezala begiak izarren parekoak. Bainan aski hortatiria hintazka...

Margot Hire zorionaz, sekulan ene eloich maitea. Bainan zer ofizio du...
Zer kondizionetakea dun...

Eloich Nik nahi bezelakoa... Ez laborari ezku zikhin horietarik, ez eta ere negoziant horietarik bethi café eta makallau uzain berekin khareatzen duten horietarik, bainan lumadun bat, esku churi eta fin batzuekin. Bankoetako jaun horietarik, gero urthetik urtherat jaun handi bilhakatu dena, trésorier, directeur de banque han edo hemen, hiri hanlienetan, etche ederretenan, eta gero ez othe da izanen directeur de la Banque de France, minichtroaren onditik lehensoltsero...

Margot Ametsa...

Eloich Ametsa?... Ametsa?... Erreala, ikhusiko duguna

Margot Eta zer dio hire amal?... Aiphatu dakona?...

Eloich Ba... Ama... Ama gaichcak nik nahi dudana eginen din, ttipi, ttipitik hala usatua dinat. Bertze alde gure aita eta amek zer dakite?...

Margot Ba, leheneko jendetarik ditun, lehenekoak/ modekoak

Eloich Ez deus batek izituak... bethi dudan... Guri dun heien heztez

Margot Ba, ba nahi gitine ibil arezi bethi bi urthetan bezala

Eloich Anjeluseko etcherat

Margot Ho, aspaldian eroz gora emanak tiun manera horiek

Eloich Ez ninan segur ene Gaston maitea ezgutuko amaren erraneri jarraiki banintz

Margot Ez othe gira aski handi gure buruen zaintzeko

Eloich Zer dakite bada ama gaicho horiek, I4 urthetran baginankinan horiek baino gehiago

SCENE V

Eloich - Margot- Ama

Ama (kanpotik) Eloich Eloich, nun zira haurra?...

Eloich (à Margot) ikhusten dun ez dun bakerik hemen

Ama (rentrant) Nan zinen ba, ene Eloich?...

Eloich Ez niz ez utthua oraino

Ama Agur Margaita, ene eloichen adichkide mina, eloich jalitzekoa baita eta ez dakit zer tenoraino, zainuko duzu bide horietan

Eloich Zer angeru begiralea hautatu duzune, nik baino beharago luke berak. Bainan biziki presatua niz Delphinaren behanago zapeta berien jauntzeko, sari ene Gaston maitearekin zinemarat joaiteko Badakizu gaur hautzen dugala espez eguna... Aphilaren akhabantzen naski...

Ama Bainan, bainan eloich, zer duzu holako gauza finkatzen gehiago phizatu gabe?...

Eloich Zer nahi duzu ileak churitu artio egon nadin karkuletan...

Margot Okasionea delarik etheko andarean behar da baliatu

Ala Okasionea... Okasionea... Nik dakita zer gizon gei duen, ez daut oraino presentatua ere...

Eloich Bainan, ama hautatu dudana gainean; badakizu perfeta dela... Eta gero, ni niz ezkontzen ez eta zu

Margot Allo Allo Zer phentsatzen duzu?...

Eloich (doucement embrassant la mère) Ama... orai artio egin tuzu nik nahi nintuen guziak. Orai ere berdin... Hatchedandut gizon geia paregabekoa... Ene Gaston charanta... Horekin eta horekin bakharri nahi dut ezkondu... Eta ama ez duzu zuk trabaruk emanen ene zorionari

Ama Soazo peraz, eta onlean jin ene ikhusterat

Eloich Ba, eta esposeko egunaz... aphairuaz aipha eginen dugu

Ama (sortant) Othoi segi zazu

Margot Ba, zaude trankil

Eloich (riant et se moquant) Hi, aingeru begiralea... Ez da mundu hontan ikhusten ez denik (regardant la montre) Leihotik oihu egin zan Delphinari ama dadin...

S C E N E VI

Kattine (la bonne 60 ans) Eloich- Margot

Kattina Andere Eloich, aldere eloich, lettra bat badut zuretzat, segur ez baituzu lehena, frantziako minichtrock ere ez dute hoibertze Ba, ene bachersak baliuzte egiteko

Eloich (ouvrant) Cho kattina zure easiekin zure dufhinek ere buruko min bat bil lezakete balakite mintzatzen;

Kattina Milesker, andere eloich, bainan nik ez dakotet giderik hausten zuk bezalaz

Eloich Ho, Gastonen lettra... Zer izkirio fina... Bera idurikoa... Hean

Ma bien chère Eulali, mon amour

Hééééé... Zer da hau?... Enetako dea letra hau... (énervée elle regarde l'enveloppe) Ba... ene adreaz da... So egiza, Margot

MARGOT

Ba, ba Zure izena (elle lit Eloich ma, doberry)

Eloich

(lisant) Ma très chère Eulalie (elle lit avec les yeux) puis tout haut) Dernière marque d'amitié avant que (ichilik) j'acris à ma fiancée Eloich que je ne peux me rendre au cinéma ce soir.... Zer da komedia hau... pour cause de laryngite (ichilik) après mon mariage avec l'héritière de (ichilik) je ne vous oublierai pas (ichilik) signé Gaston Guibetteau... Bainen Ama ama, ser da hori; ametsatan niza... Ai ai ai ... Ez dut deus konprenitzen... Margot, leitzan letra hau... EulaliEEE. Eulalie nor da hori?...

Ama

(rentrant) Ez zazula burua gal haurra. Norbait trufatzen da zutaz

kattina

Papergno batek hola nahasten ahal duela jende bat

Margot

Deus onik paper hoi... deus onik... Bombe atomique idurikos...

Eloich

(prenant la tête dans ses mains) (se mettant en colère) debru... debru... traidorea... traidorea...

kattina

Izpiritu gaichtoa zartzen ari dako gure andere Eloichi

Elouch

(bousculant kattina) Debrua, debrua hura debrua...

kattina

Ur benedikatua... Ur benedikatuaren chekha johan naiz

Ama

Cho, chá Eloich ez da debrurik hemen.

Eloich

(elle bouscule sa mère) Zu ere haren alde zira orai... Ai, ai, ai, joaiten ari naiz jositen (elle tombe évanouie

J. Marie

(entrant précipitamment) Gaicho Eloich

Ama

(nahasia) Ene haurra hiltzen ari... hiltzen...

Kattina

Ez, ez etcheke anderia, trempu chartua da bakharrik, emanen daikot zorbait zafrafo eta pegar bat botatuko, phistuko da ba, gure anderea

J. Marie

Denen artean joan dezagun oherat, han emanen dugu luze luzea, burua apha aphala, (on l'emporte

Ama

Gaicho haurra Eloich Atzar hadi... Ez hil... Othoi ez hil...

kattina

Uste baino phizuago da gure anderea

J. Marie

Polliki emazu kattina..... (Eau de cologne)

A C T E II

S C E N E I

Margot -Delphine

- Margot (seule) Hauche da saltaa. Ho,ho (1/2 ahurie 1/2 riant)
- Delphine Hara ekhartzen tut andereñ Eloichi behar dituen zapetak. Aldi huntan satifos...
- Margot Ahola guti din zapetez memento huntan. Lettra bat ukhanik erdi erhotua dun eta treapu chartua zagon
- Delphine Jakin dinat...Karrika guzia ichtorio hortaz bethea dun...
- Margot Baya...eta zer diote?...
- Delphine Huna,Gaston gizon gei pullit/ hori, bizicletas ohmichta bezala erhobat iduri posterat juan dun. Eta bere presan itzuli purri bat gaiza egin din. Bicycleta hautsi din,bisai zikhindu eta odolatan postan sarthu dun..
- Margot Eta gero?...
- Delphine Postako andereari galdegin zaikon,bezperan postan sarthu zituen bi lettras. Bainan inardetsi zakon bi oren hartan fakturak joanak zituela
- Margot Hauche da ichtorioa...Komedia ezin sinhetsia.
- Delphine Beraz,lettra horietarik bat,anere geiarentzat zinan...bertzea neska hits batentza;orok ezagutua Eulalie...Gizon ergel hori bere presan anvelopaz trompatu dun eta bati igorri bertzearen dako zuen lettra
- Margot Ezin sinhetsia...ichtorio horb...
- Delphine Eta ederrera,Eulalie chirchil horak berak,beria alde guzietan hedatu din. Kartier guzia irriz zagon. Nahi ninken ikhusi Gaston ergel horen muthutgnoa...Maha berriño etche alde behar zagon suduraren azpitik phasatu. Orobat erortzea makhartu zakon
- Margot Hots,malhur guziak. Andere gei guti hatchemanen din hemendik goitb ...Iduritzen zautan heldu dela ganberatik...Zer oihuak zer nigar hipak...

S C E N E II

Margot- Delphine- Kattina- Eloich- Ama

- Eloich Ai,ei,ai,ei, Ez da eni bizik gerthatzen holakorik...Dohakabea... Malurus naiz...
- Ama Chó,cho, ene maitea. Kontsola zaite/..
- Eloich Ez da gohiago kontsolasendurik enetako...Fini da Adios ene gorions

- Margot Bainen Eloich ez asalda...Kalte eginen dun hire buruari
 Eloich Hi ere hobendun Margot. Phusatu binun Gaston madarikatu horekin etzkontzerat...
- Margot Nik nankiena nolako zen...Erran dautan manera pollitak zituela.
 Eloich (en colère) Ez aipha gehiago izen hori. Izen kaskoin hori...
 debruak phensatua
- Margot Haatik.....Gizon charanta
- Eloich Ago ichilik...Ile horiek, meha horiek debruaren adarrak, begi hoik ifernuko sus...elhe lagno horiek satanen hatsa. Ni nun crai; irri egin garri...Es deusentzat on
- Ama Etzazula holakorik erran
- Delphina (timidement) Andere Eloich eta gure zapetak?... (elle lui tend les souliers. Eloich les prend et les lance par terre)
- Eloich Zapetak?...Ez niz heien arreguran segur. Fini da enetako...
 (elle bouscule tout) Ene burua urkhatuko dut. Adio ama...Banoa...
 banua ur handirat ene buruaren botatzerat...
- Ama (oihuka) Ez, ez haurra (en criant) kattina...kattina

SCENE III

(les mêmes)

- kattina Zer da bada etcheko anderea. Zer dire oihu horiek (eloich sortant la bouscule)
- Ama Ur handia? nahi du bere burua botatu...
- kattina Ur handian. (elle la tient) Burutik baduzia...Hotz hunekin ur handirat??..Bainen hotzarekin dardaran ariko zira...Ur hotzean bethi ur bero galdeka ari da eni bertze arduz
- Eloich (se dégageant) Beraz hartzen dut zure sokak. Selaurian ene burua urkhatuko dut
- Ama Othoi haurra ez holakorik
- kattina Zer ene sokak??..Bokhetaren idor arazteko behar ditudanak? Ez ditut zuretako andere Eloich
- Margot Hi bezelako andere ederra. Urkhatua...Han dilindan...Mihia berge bat luze...Begisk lanternen pare eta sorginek bezala gorritusk Gala itsustua
- Ama Gaicho haurra ez eni aipha holakorik
- Eloich (que kattina tient toujours) BERaz utz nezazu eta zu kattina, zazi pharmaciarat eta ekharrazu cyanure de potassium boata bat
- kattina Zer da hu a ? bisaiaren goritzeko puidra zerbait . Segur baduzu beharra. Nola erran duzu?

- Eloich " Cyanure de potassiun (oihuka)
- kattina Zer???Chiamu de pota
- Delphina Bainan hori phozoin izigarria da...Khasu ez hortarik eros kattina
- Margot) Halada, Alemanek ere horrekin phozoindatzen zizuten beren buruak
- kattina Phu...Zikina...Alemanek bezala...Eta gero phozoin horrekin geizek tripako minak ukhanen ditutzu...Hertzeak horopilatuak...Ez holakorik andere Eloich
- Eloich Beraz zer eginen dut?...Ez niz gehiago hemen egondo. Ez nezake ene burua jasan...Ah...Baniz...Ama adios sekulakotz sarthuko niz komentuan
(ama oihuka khechu kattalin karkailaz irriz)
- ama Ez holakorik...Ez holakorik...debekatzen dautzut komentuan sartze gain gainetik haur malurusa
- kattina (Iriz urratua) Ez beldurrik izan etcheko anderea,ez beldutrin iz
- Eloich Ba, hemendik urrun urrun...Ez sekulan etcherat itzultzekotan
- Ama) Jandarmeak igorriko dautzut handik athearazteko
- kattina Ez duzu beharrik izanen etcheko anderea...Andere hau goiz guzietz borzt orenetan jeikia...Zer aperantzia
- Margot Eta obeditu behar à Mme la Supérieure
- Delphine Orenak eta orenak othoitzean
- kattina Eta ichil ichila egoitea...eta penitentziak....Ha ?ha,ha,
- ama Ez dut nahi holakorik, ez dut nahi
- Eloich Ama trichtea ez dautzeu sekulan deusik debekatu orai arte...
- Kattina Etcheko anderea ez grigna hortako,ez du ez komentuan sarthuko
- Eloich Zer eginen dut bada...Zer eginen eradazit?...
- Kattina Bertze gizon gei bat hatchemanen eta plantakua gero hura
- Margot Zer uste duzu kattina. Holako bihotz mina izan eta kurri ditakela berriz gizon gei baten ondotik...
- Eloich (pleurant) ha,ha,ha,
- Kattina Othoi andere Eloich ez ssalda. Ochtian ez zinintuen Delphinak ekharri zapeta heik gostuak...Brau...botatu ditutzu eta bertze pare bat ekhar arazi...Ez dea hala Delphina?...
- Delphine Ba, eta hautak ditu orai

- Kattina Beraz hala hala zinuon gizon gela, jaun futre bat... iger azu fera futro eta har bertze bat.... ~~NAK~~
- Delphina Bai eta funtsezkoa gero
- Ama Gaicho kattin... badugu zure beherra
- Kattina Beraz andere Elouch amés beltz horiek utzirik, jar zaite hemen eta ekhar etchekoxuntak ~~xseharxskantakoxhat~~ huntarat senhar gei bat plantakua... Hea Delphina zapetak nola tuen orai... Nik arte hortan inendakot tisana chorta bat à l'eau de menthe zeinen eztitzeke.... eta andere horier dute presa bat, badut oraino pochigno bat chokhoan...
- Ama Ontsa phentsatua kattina. Denen artean kontsolatuko dugu

S C E N E IV

- Eloich Ah zer pazientzia behar den mundu huntan... Zoazi pulliki Delphina Ez dautazu munik eginen zapeta horiekin...
- Delphina Ez anderea ez. Handicho hartu ditut ikhulis besten eskasa
- Kattina Bai, hala nion zapetez gizon geiez bezala
- Margot Gure kattina horek ederrak atheratzen dauzkigu
- Kattina Ba, guzia da hauta onaren egitea eta ez itsutuki joaltea lehen billiarroaren besoetarat
- Delphina (on frappe timidement)
Aski hortarik Kattina...
- Ama Kattin ikhus asu leuhotik nor denhor
- Margot Herabetssun zerbait badu bortha joile horrek
- Kattin Cho, cho, jaun bat... Gaston behar bada...
- Eloich (asaldatua) Zer?... Nor diozu... Gaston?... Gaston madarikatu hura?... Ama, ama aita zenaren harmorioko gakhoe emazu fite, fiye
- Ama Zere, dak... Haurra?...
- Eloich Han da erreholbera
- Toutes Oh, oh, oh...
- Eloich (ama inharresiz) Ba, ihizi horie garbitu behar dut
- Ama Bainan ez dut enekin
- Aloich Emazu bada, emazu ez du eskapurik fripun horek...
- Ama Haurra aspaldi du esebak joana duela harma hori
- Margot Urruski

- Delphina Beharrik
- Katticha (arrive avec une cruche d'eau) Oizu anderea. EMakozu oilar hori trempaldi bat ona...Frechkatuko da agian
- Eloich (laster betan lehorat) Errebolberaren eskasean zer nahi on zaut
(on entend dans la coulisse Gaston)
Andere Eloich barjha ene letra
- Eloich (criant) Zu? Hor? Atrebitua
- Gaston Othoi...Othoi...Barkha...ESpres
- Eloich Gizon dripuna...Zikhina...Ez zaitut ez hilen...Bainan hau (elle lance l'eau et la cruche avec) eta urrun hemendik ifernuko debrua
- Kattina Ohnepe pegarra hautsi... aurtiki du...ai, ai, ai. Emanen nintuen gogotik hogoi gizon gei pegarren ordein...Zer egin duzu Eloich
- Eloich Zer egin dutan...Gizon zarpail hori aurtiki dakot pegarra. Maluruski ez dakot naski burua hautsi...
- Kattina Ez duzu baken burua hautsi, bainan ene pegarra, hogoi urthe huntan enir zen pegarra
- Eloich Achola gutik dut ori zure pegerraz
- Margot Haatik kasko gainean hatcheman bahu?...
- Eloich Etsakinat kasko gainean ala zangoan hatcheman dutan, denan den maikhuka joana dun gure ezkaratzetik??...Debruak ereman dezala
- Kattina Ez holakorik erran...
- Eloich Bizi neizeno ez niz seget haren ondotik ibiliko. Ez nute berriz ikhusiko " au dancing des Tilleurs argentés". Holako choriak han aurkhitzen direnaz gainean...
- AMA Enuen bertzerik desiratzen
- kattina Beraz nik ene pegarrari adios egin diotan bezala...Zuk ere hala, hala andere Eloich
- Eloich Ez grina eta ez nigarrrik egin pegarraz kattina, bertze bat pagatug dautzu ederrago koa
- Kattina Zuk ere hala, hala andere Eloich, hatchemanen duzu gizon gei bat Gaston baino Galontagoa
- Orok Biba zu kattina
- Eloich Mila esker kattina, urkezko elheak ditaztu. ..Bainan mundik ezagutuko dut paregabeko gizon gei bat...Zapeta pare bat ez delar untza bertze pare bat hartzen da...Hala, hala pegar bat...Bainan gizon gei bat
- Kattina Nik ez dakit munduko merri hanirik, bainan badira oraino muthiko gazte plantakoak .Ez etsi andere Eloich hatchemanen duzu

- Delphina Eta aditu duzia berri handi hori...Frantses gastellondokoa espotzatzen zela ilhunberriko nechkatcha batekin,non ohartu baita,eskuak churi eta frango delikatuak zitueka...behartzak hethi gorriz thindatuak...Ezpainak berdin eta bertzela frango minbera...
- Margot Eta gero?...
- Delphina Murhikoak egin din,etzuela etchean ahaliko potret beharril,esku churi,delikati mediku phazka. Halakcekin supaster hitza eta kozin friko onik ez...eta jendea khechu...Eta ilhunberrikoa utzi din ilhunberriin
- Toutes Arrazoina
- Eloich Halaz, orduan hemendik aitzina,ama eni etcheko lanen egitea...Nik bacherak
- kattina chukhatuko...Nik ikhusiko...Ur bercean haatik...Bakhotchak beria
- Eloich Bainan behar ditut eskpak hain bat beltzu...Haatik helduden astetik joanen niz à l'école ménagère,plat en guzien ikhasterat
- Ama (l'embrassat) Ene haurra
- Margot O chtian ez dautzi erran,bainan nik aditu fut Kaiet haizpuñki elhetan sarthu dela machondoko martchalinarekin
- Delphina Eta...Margot...Afera ez dun urrun joan...Zertako?...
- Margot Martchalina hori,neskatoko handia,haro handikoa,jadanik gizon gazrea manatu nahi...
- Guziek Orduan?...
- Margot Orduan,kaiet eran din,ni nere chokoan ez dut tenpesta beharrik Emazte kppeta gora elhea gurago galerna etchean. Ni nahi naiz han kapitain gure aita zena bezala
- Delphina Ederki . Ebanjelioak ere hala dio
- Eloich Oh ama,ni nahi niz uhik izan. Ez dautzut ez gehiago elhexkitaki bichichko horietarik erranen...eta obedituko zaitut...Bainan zorigaitzez ez dakizu manatzen...
- kattina Zer egia...Alaba zen ba manatzaie...
- Eloich Ez dautzazu sekulan deus manatu...Kattalin beharko duzu eran amari noiz behar din manara
- Ama Oh haur charmanta
- Mattalin Balakatzen badaki ba,bertzetik deus
- J. Marie (rentrant) Heldu nizeuzi berri handi batekin,jakin duzia manech inthaltzekoa espos gei zela EULALIE perlin berdakoarekin. Berrikitan hautsi da eskontza hori

- Margot Khosu zerbait alainan
- J. Marie Huna, gure manech ohartu da Eulalie hori lakhet zakola kanpoan etchean gutichko ageri zela. Denekin komplimendu hunat, komplimendu harat, kanpoko aferez burua hantua eta etchekoez achola guti
- Margot Hor ere saltza jastatu gabe gure gizona asea dudarik gabe?...
- J. Marie Erran duguna, manech laster ohartu da zer emazte zindaken eta xain ~~gaitx~~ zion: Gure andere hori urcho kanpoan eta behar bada bele barnean, beraz bego kanpoan
- Denek Ontsa hori
- Eloich Ez niz ez Eulalie idurikoa izanen
- Margot Ba, aski izan baitzira orai artio
- Eloich Ez dun ez deus erraitekorik Margot adichkidea hire huruari behatu eta. Beraz hemendik harat itzanen gira etche barneko eta kanpoaz guti arren guratuko. Arengura gehiago izanen dugu gure lanez, aphaiz zea gure egoitza, izan dadin egiazko lakhet lekhu
- J. Marie Ba eta choriak izan diton kayoien idurikoak
- Eloich Ba; halakoetarik izanen gira Jainkari esker... Balicsak, langileak gochoak... alegerak
- kattina Ez da goizegi
- Eloich Bainan kattina horiek bezala hein han bat alegeratsun behar da etchean
- Kattina Orduan ez duzue kutitzerik izanen gizon geien ondotik, Prestuenal jinen zeuzkitzue cheka... Hauta izanen duzue...
- Eloich Beraz izan gaiten hautuzko andere geiak

(" des fiancées modèles)

: - : - : - F I N : - : - : - : - : -

: - : - : - : - : - : - : - : - : -